

MARIBI UGARTEBURU

Mutututakoen bozeramailea.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Judit Fernandez



«Politika diogunean herrigintza diogu»

Kazetaritzatik politikara pasatzea lubakiz aldatzea ez bada...

Lubakiz aldatzea? Lehen galderak egiten nituenean eta orain erantzuten ditudanean, berdina naiz. Ez dut pentsamoldez eta printzipioz aldatu.

Pentsamoldez eta printzipioz aldatzen ez duenak bide motza du politikan.

Politikak historiako une jakin batean jendarte baten korapilo nagusiei erantzun adostu eta bidezkoak bilatzeko erreminta izan behar luke, ez inposizioz, ukazioz eta fribolitatez mozorrotuta saltzen diguten teatroa.

Aizu, errespetua Arte Eszenikoentzat.

Kasta politiko dominanteak beldurra dio zinezko debatarei, eta popa-bistan ez geratzeko, irain eta akusazioetara desbideratzen du fokua. Noiztik ez dugu benetako eztabaida politiko bat ikusi telebistan? Ahaztuta daukat... Ez dakit inoiz ikusi dugun ere.

Orduan, hauteskunde gauetan ez duzue denek irabazten?

Fribolitatearen beste isla bat. Emaitzak emaitzak dira, zenbakiek ez dute gezurrik esaten, eta bakoitzak bere irakurketak positibizatzen dituen arren, noiz ulertuko dute batzuek jendea ez dela tontoa?

Hauteskunde bezperan ezinezkoak ziren paktuak biharamunean zergatik diren posible azaltzen didazunean, agian?

Politika espektakularizatu honetan mezu

faltsuak direlako nagusi. Politikari faltsuke-riaren trajea erantzeko, lau urtez behin bozkatzeaz haragoko herritarren parte-hartze eta enpoderamendu bideak eraiki behar ditugu.

Herritarren enpoderamendua eta parte-hartzea ez da asteburero manifa bat izango, ala?

Guk politika diogunean herrigintza diogu: bere burua eraikitzen duen herri bat, herritarrek aktore diren herri bat. Erantzunerako, haserretako eta aldarrikapenerako arrazoiak ez dira inoiz faltako. Guri dagokigu mobilizatzeko modu egokiak asmatzea.

Hain da eskizofrenikoa atzo arte ilegalak izan eta bihar Ertzaintza gobernatzeko zorian egoatea!

Errespetua sortzen digu baina beldurrik ez. Ilegalizazio aroa erabat gaingiditzean arnasa hartuko dugu, baina horrek ez du eroso-kerian jausiko garelana esan nahi. Desiratzen gaude euskal herritarrongan intzidentzia zuzena duten gaietan eragin eta aldaketa bul-tzatzeke.

Bai, bai, baina beste hark zioenez, EAJrik gabe ez dago independentziarik eta EAJrekin ere ez!

Siglak eta partiduak lehenesten dituen politika moldeak barik herrigintzan oinarritutako politikan jardun behar dugu. Momentuz garbi dagoen bakarra gehiengo sozialik gabe independentziarik ez dagoela da. Gehien-goia izan behar dugu. ■

